


TXISTULARI

Aldizkaria



TXISTULARI

Aldizkaria

SOROZABAL ETA TXISTUA

Jose Inazio Ansorena Miner



Pablo Sorozabal en 1920.




Sorozabal contemplando el violín con el que se ganó la vida en su juventud.

Hogei-bat urte nuenean ezagutu nuen Pablo Sorozabal. Mirakontxan zegoen etxe bateko jabeak hots egin zidan ea gure txistulari laukoteak joaterik izango ote zuen egunean bertan antolatuta zuten afari bat animatzera. Baietz, eta Sorozabalek txisturako prestatuta zituen obrak eramateko han egotekoa zelako. Kokilduta joan ginen eta jo, ordurako entzuna genuen Sorozabalen jenio txarraren gaineko hamaika istoriatxo. Hala ere, hunkituta agertu zen bere obrak entzutean eta bero-bero zoriondu gintuen. Gizon arraisu eta jatorra iruditu zitzaigun.

Urte askotxo pasata, larogeigarren inguruan, izan nuen maisuarekiko bigarren harremana. Txema Vitoriak —egun Txiribiton izenez ezagunagoa eta Debako Danborradako zuzendaria— eskaera egin zidan: Sorozabalek eгина zuen **Osio Bideko Polka** txistulari talderako moldatuko ote nukeen, eta **Txistulari** aldizkarian argitara eman. Prestatu nuen moldaketa eta baldintza jarri nion argitara aurretik: Sorozabalek berak ikus zezala eta onarpena eman. Ez nuen istilurik nahi. Berarekin hitz egin zuten telefonoz eta laudorio polita bota zidan. “Ansorenak eгина bada, ondo egongo da” —horrela kontatu zidaten behinik-behin. Hala ere, partitura bidali zitzaion eta ohar honekin bueltatu zuen: “Nik egindakoa hobetu egin da”. Bada, kit ondo garbi ez zela horrela. Baina mamutzar fama ez zitzaidan agertzen eta hori da batez ere azpimarratu nahi dudana.

Donostiako Enkomenda eskaini ziotenean eta azkenik —demokrazia iritsi ta gero— onartu zuenean, berriro topatu ginen. Omenezko ekintzarako hiru eskaintza egin zioten: koru batek bere obrak ematea; bakarreko kantari batzuk bere **liederrak** piano laguntzaz eskaintzea; edo txistulari talde batek bere txistu obrak jotzea. Sorozabalek hirugarren bidea aukeratu zuen. Txistua maite zuela garbi geratu zen. Niri eman zidaten kontzertu hura prestatzeko agindua eta Fernando Juárez, maisuaren lagun kuttunaren bitartez izan genituen harremanak. Sorozabalek azkeneko urteetan txistuari buruzko eritzi kurioak zituen: ezagutza ezak eraginda batez ere. Ez zuen silboterik nahi eta ez dakit zenbat kontu. Fernando Juárez bera beldurtuta zegoen: “Begira, Ansorena, bere txistu obren bertsio berriak prestatu ditu eta horrela jotzea nahi du. Batere aldatu gabe”. Nik ezetz erantzun. Sorozabalek ez zuen txistua ezagutzen eta obrak ez zituen tonu egokietan jartzen. “Aldatu egin behar ditut”, esan nion Juárez-i. “Ez dakizu nolako jenioa duen. Etzazula, faborez aldaketarik egin”. Baina aldatu egin nituen. Omenaldiaren egunean jo eta domina jartzera eszenara etortzean hurbildu zitzaidan eta honela galdetu: “Ansorena, ¿has cambiado la tonalidad, no?”. Eta nik, erantzun: “Sí, maestro. Las he transportado una cuarta descendente”. Orduan Sorozabalek: “Muy bien, Ansorena, muy bien. Así quedan mucho mejor que como yo las he escrito”. Ez zen harritzekoa. Ez zuen txis-



Pablo Sorozabal

tua ezagutzen, baina musikari haundia zen eta belarriak ez zuen engainatzen.

Hauek dira nik Sorozabalekin izandako harremanak. Gehiago ez. Inor harrituta gera daiteke hemen hainbat aldiz errepikatu dudana irakurtzean, alegia, Sorozabalek ez zuela txistua ezagutzen. Ez da batere harrigarria. Txistua oso jende gutxi ezagutzen du, barnetik, benetan eskaintzen dituen aukerak eta eskaintzen ez dituenak. Maiz txistulariek ere ez dute modu egokian erabiltzen. Baina Sorozabalek berak aitortu zuen hau **Txistulari** aldizkarian (nº 124) agertutako elkarrizketa batean: "Me ocurrieron cosas graciosas porque ignoraba en qué tono estaba el txistu y le di a Ansorena la partitura en do mayor y en clave de



Con mis amigas Pilar de Paz y Mari Elena Arizmendi.

sol, y fue mi asombro cuando escuché que sonaba una quinta más baja. Desconocía que el txistu estaba en fa" (Ansorena hori ez nintzen ni, aitona baizik).

Sorozabalek txisturako egindako obrak tonuz kanpo daude denak, bi ez beste. Jatorriz txistu obrak ziren azkeneko bi hauek —Donostia eta Batelarien Zortzikoa— eta zuzenean txistu paperetatik hartu zituen, hau da, berak armonizatu besterik ez zuen egin. **Batelarien Zortzikoa** dela-eta, beste gertakari bat dut gogoan. Obra hori presatu eta garai hartako **lzarti** dantzari taldeko zuzendari zen Mª Elena de Arizmendi eskaini zion. Honek aitona Isidroren taldeari deitu obra hura estrenatzeko dantzari ta guztiz: "Vengan ustedes, Isidro, que Sorozabal me ha dedicado una obra y tenemos que estrenarla". Txistulariak entseura joan eta obra ikustean: "Pero si esta melodía llevamos más de cincuenta años tocándola". Mª Elena de Arizmendi haserretu egin zen, hura orijinala zela eta Sorozabali idatzi. Honek garbi erantzun: "Es una melodía popular de los tamborileros que he armonizado". Egiazale zen eta egia aitortu zuen. Zein da beraz, eta amaitzeko, Sorozabalek utzi didan oroitzapena? Jendearen ustean jenio txarreko zen musikari haundia eta nirekin beti atsegin, apal eta zintzo agertu zen gizasemearena. Goian dago.



Txistuak egiten hasi zenetik musika tresna honen hobekuntzarako denbora luzean aritu ondoren, J.A. Laboak adierazi nahi dizue eskuz eginiko Txistu gama berri bat atera duela.

Ebanoko egur tratatuz eginiko txistu hauek Donostiako Musika Goi Mailako Kontserbatorioko Txistu Katedraren arauz afinatuak izan dira (LA 445 Hz).

Informazio zehatzago bat lortzeko eta eskaerak egiteko ondoko helbide honetan jo:

Donibane Kalea, 49 behean. Pasai Donibane-Gipuzkoa
(Tfnoa: 943 51 78 20).

J. A. Laboa, después de un largo período desde su inicio en la fabricación de Txistus, (dedicado a perfeccionar y obtener una máxima calidad del Instrumento), tiene a su disposición una nueva y Artesanal gama de Txistus.

Instrumentos fabricados con madera de ébano (tratado) y afinados (LA 445 Hz.) siguiendo las normas de la Cátedra de Txistu del Conservatorio Superior de Música de San Sebastián.

Para más información y pedidos dirigirse a:

Donibane-k, 49 behean. Pasai Donibane. Gipuzkoa (Tef. 943-517820).